

AURKIBIDEA

Udaleko Gizarte Zerbitzuak	3
Adineko pertsonak	5
Gizarte bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonak	12
Adingabeak eta familiak	15
Indarkeria Matxistaren biktimak	17
Dirulaguntzak	19
Ekimen interesgarriak	24

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

AZKOITIKO GIZARTE ZERBITZUAK

Azkoitiar guztien ongizatean bidelagun izatea da Azkoitiko gizarte zerbitzuak osatzen dugun lantalde guztiaren xedea.



Hartu hitzordua!!!

Laguntzeko baikaude gizarte langileak, administrariak, hezitzaileak...

Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara aurkituko gaituzue:

- Udaletxea (beheko solairua)
- gizar@azkoitia.eus
- 943 85 71 74

INFORMAZIO, BALIOESPEN, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTABIDE ZERBITZUA

Zerbitzuaren helburua da herritarrek eskura dituzten baliabide, prestazio, baldintzen eta prozeduren inguruko informazioa ematea, eta lehen balorazio baten ostean, premiak aztertu, diagnostikoa egin, eta zerbitzurik egokienera bideratzea. Beharrezkoa bada, Arreta Pertsonalizatuko Plana lantzen da (gizarte langileen eta

beste profesional batzuen laguntzarekin lagunduko dizute zure egoera aldatzen, erabakiak hartzen, aldaketak sendotzen eta oinarrizko gaitasunak eskuratzen, zure bizi-proiektua autonomiarekin eraiki dezazun).

GIZARTE LARRIALDIEN KOORDINAZIOKO ZERBITZUA (SFUS)

Eguneko 24 ordutan egiten du lan, urteko egun guztietan, eta Gipuzkoako lurraldean gertatzen diren gizarte larrialdiko egoerei berehala erantzuteko zerbitzua da, Udaleko gizarte zerbitzuen ordutegitik kanpo.

- 943 22 44 11
(15:00etatik 21:00etara)
- sfus@gipuzkoa.eus
- 112 SOS DEIAK bitartez
(21:00etatik 7:00ak arte)



ADINEKO PERTSONAK



MEDEKOTASUN BALORAZIOA

Eguneroko zereginak normaltasunez garatzeko pertsona askok, adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasun bat izategatik, zailtasunak dituzte eta beste pertsona baten edo batzuen laguntza behar izaten dute oinarrizko premiak asetzeko. Mende-kotasun balorazioaren helburua da behar hori neurtzea eta dagokion prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko bide ematea. Bertan zehazten da: I gradua, II gradua eta III gradua.

Egoitza baliabide batera sartu ahal izateko ere ezinbestekoa da (behin betiko egoitza, aldi baterako egoitza, eguneko zentroa edo apartamentu tutelatueta) gai/ez gai balioestea eta dagokion profila zehaztea (oinarrizkoa, osasun zamak, galera kognitiboa...).

DESGAITASUN BALORAZIOA

Besteak beste desgaitasun maila eta mugikortasun mugak baloratzean datza. Desgaitasuna ehunekotan neurtzen da eta aitortua izateko beharrezkoa da % 33 edo handiagoa izatea.


Horrez gain, desgaitasuna duen pertsonarentzat ondorengo baliabideen egokitasuna zehaztu daiteke: egoitza, eguneko zentroa eta egoitzako aldi baterako egoinaldia.

TELELAGUNTZA

Telelaguntza zerbitzuari esker, erabiltzaileek arreta iraunkorrekoko zerbitzua dute etxean, eguneko 24 ordutan eta urteko egun guztietan. Zerbitzua larrialdi-egoerei edo premia sozialei erantzun egokia emateko berariaz prestatuta dauden pertsonak ematen dute. Erabiltzaileak, zerbait gertatuz gero, botoi bat du arreta edo laguntza eskatzeko.

Telelaguntza zerbitzua udaletxean eskatu daiteke, baina Eusko Jaurlaritzak ematen du. Hileko gehieneko prezioa 4 euro da.

Besteak beste, zerbitzuak eskuragarri jartzen ditu su-detektagailua bezalako segurtasun gailuak.



ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden azkoitiarrei beraien etxeetan eskaini ohi zaien zerbitzua da. Helburua da norbere ingurunean bizitzen jarraitzea eta isolamendu-egoerak saihestea, ondoren zehazten diren zerbitzuak eskainita:

- **Etxeko Laguntzako eginkizunak: elikadura, arropa, etxebizitza mantenua eta antzekoak.**
- **Laguntza pertsonaleko eginkizunak.**
- **Laguntza soziokomunitarioko eginkizunak.**
- **Ohiko zaintzailearen atsedenaldirako jarduerak.**

Zerbitzua azpikontrataturako enpresa bateko langileen bitartez eskaintzen da eta zerbitzua ordaindu egin behar da bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera, gehienez 14 euro ordua.



BIZIPOZA: EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

Jomuga da arriskuan edo mendekotasun-egoera arinean dauden adineko pertsona azkoitiarrei autonomia izaten laguntzea, beren ohiko bizimoduan jarraitu eta gizarteratzen laguntzea, eta, beharrezkoa bada, isolamendu-egoerak konpentsatzea. Bertan egiten diren jarduerak ahalbidetu nahi dute azkoitiarren osasun fisikoa eta kognitiboa hobetzea, gizarte-harremanak eta integrazioa sustatzea eta alderdi ludi-koa lantzea.


Astean 2 edo 3 egunetan elkartzen diren lantalde dinamikak dira, profesional batek gidatutakoak, eta urte guztian zehar eskaintzen direnak. Taldeak osatuta daude 6 eta 15 kideren artean.

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Helburua da, alde batetik, desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza produktuak eskaintzea, horien bizi-kalitatea eta eguneroko gauzak egiteko autonomia ahalbidetuta. Eta bestetik, pertsona horiek zaintzen dituzten familiei eta langile profesionalen laguntza-tresnak eskuragarri jartzea.

Tresna, ekipo eta sistema tekniko horiek balio dute pertsonen urritasunak eta mendekotasunak prebenitzeko, konpentsatzeko arintzeko edo neutralizatzeko. Besteak beste, bainu inguruko oztopoak kentzea, garabiak, ohe artikulatuak, entzuteko protesiak. Kontsultatu katalogoa.

Azkoitiko Udalak larrialdiko laguntza teknikoaren lagapen zerbitzua du mendekotasun edo desgaitasun balorazioa ez duten herritarrentzat. Besteak beste, aldi baterako gaixotasunak dituztenentzat edo hiltzear dauden pertsonentzat. Utzitako produktuak ordaindu egin behar dira.



HAUSKOR PROGRAMA

Gizarte- eta hezkuntza- arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea egitea da zaurgarritasun, ahultasun eta mendekotasun maila arinean dauden 65 urtetik gorako Azkoitiarrekin.

Programa honetan, gizarte hezkuntza laguntza eta arreta psikosoziala eskaintzen da banaka, familian eta komunitate mailan, eta prestazio hauek adineko pertsonaren etxebizitzan zein komunitateko ingurune irekian garatu daitezke.

Zerbitzua doakoa da.

EGUNEKO ZENTROAK

- Mendekotasun egoeran dauden adinekoen Eguneko Zentroa. Arreta integrala eskaintzen die egunean zehar eguneroko jardueretarako muga fisiko edota psikiko handiak dituzten pertsonen, beraien eta familien premiak asetuta eta beraien ohiko ingurunean bizitzen jarraitzen ahalbidetuta. Garraio zerbitzua ere eskaintzen da. Azkoitian asteburuetan eta jaiegunetan ere ematen da zerbitzua.
- Buruko gaixotasuna duten pertsonen Eguneko Zentroa. Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonen berariazko laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkiete, gaitasun eta trebetasun pertsonalak hobetzeko: trebetasun instrumentaletako trebakuntza, osasunerako heziketa, eta komunitate euskarria, errehabilitazioari eta gizarteratzeari laguntzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonen Eguneko Zentroa. Arreta indibidualizatu eta integral bat eskaintzen die, egunez, mendekotasun egoeran dauden eta desgaitasuna duten pertsonen. Ondorengo helburuak ditu: haien autonomia hobetzea edo mantentzea, haien muga funtzionalak konpentsatzea, eta eguneroko bizitzako jardueretan laguntzea, gizarteratzen eta bizi kalitatea hobetzen lagunduz.



ALDI BATERAKO EGOITZA EGONALDIAK

Aldi baterako egoitza egonaldiak bermatu nahi du mendekotasun egoeran dagoen adineko pertsona bati behar dituen zainketak ematea, haren familiartekoen eta zainzaileen beharrez erantzunez. Ez-ohiko ezbeharretan eskatu daiteke, baita ere zainzaileen atsedendietan.

ZAINZAILLEENTZAKO LAGUNTZA-PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten familiei laguntzeko hainbat baliabide eskaintzen dira, familia barruko gorabeherak saihesteko, elkarbizitza normalizatua emateko, eta mendekotasuna duen pertsonari arreta egokia eskaintzeko. Barne hartzen ditu prestakuntza, elkar laguntza taldeak, arreta psikologikoa, egoitzako aldi baterako arreta laburra, eta asteburu eta jaiegunetako eguneko arreta, besteak beste.



EGOITZA ZERBITZUAK

Egoitza ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra da. Bertan babes eta laguntza maila handia eskaintzen da euren premiak ohiko ingurunean bermatu ezin ditzaketen adineko pertsona menpekoei.

Intentsitate handiko zentroak dira eta bertan bermatzen da zaintzaileen presentzia iraunkorra, eguneko 24 ordutan; sendagile eta erizaintza zerbitzua; diziplina anitzeko profesional talde baten laguntza eta ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilen esku-hartzea.


Egoitza mota ezberdinak daude pertsonaren profilaren eta egoeraren arabera egoitza: ohikoa (oinarrizkoa, osasun zamak, galera kognitiboa), unitate psikogeriatricoak eta egoitza soziosanitarioak.

BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK (TUTELATUAK)

Adineko pertsona autonomo edo mendekotasun maila arina dutenentzat, intentsitate baxuko ostatu zerbitzua da. Bertan oinarrizko prestazioak eskaintzen dira (segurtasuna, jarraipena, bitartekaritza...), baita aukerakoak ere: garbiketa, osasun-arreta...

APARKALEKU TXARTELA

Mugikortasun urria duten pertsonentzako ibilgailuak aparkatzeko txartela da. Batetik bestera joateko erabiltzen dituzten ibilgailuak behar duten lekutik ahalik eta hurbilen aparkatzeko balio duena. Mugikortasun urria egiaztatzeko balorazioak egin behar dira, eta, besteak beste, honako egoera batean egotea balioetsi behar dute: gurpil-aulkia ezinbestean erabiltzea, ibiltzeko makulu bi derrigorrez erabiltzea, mugikortasunean 7 puntu izatea gutxienez



GIZARTE BAZTERKERIAN EDO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK



GIZARTE BAZTERKETAREN BALORAZIO ETA DIAGNOSTIKOA

Zerbitzu honek laguntzen du bazterketa egoeren identifikazioa egiten, eta, hala badagokio, haien neurketa ere bai. Orobat, bideratzen ditu eskatzaileak beren beharri-zanei ondoen erantzuten dieten zerbitzuetarantz edo prestazio ekonomikoetarantz, edota zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko konbinaziora, haiek eskatzeko betebeharrak betetzen badituzte, betiere.

Balorazioa egiteak suposatzen du eskaeraren balorazioa egitea, gizarte diagnostiko espezializatua egitea, eta egokien balioesten diren baliabideetara bideratzea.

GIZARTE [ETA HEZKUNTZA] ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU-HARTZEA

Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsona helduei zuzenduta (bakarka, taldeka eta komunitate mailan). Hots, bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea. Zerbitzuak honako programak ditu:

- Gizarte eragileei zuzendutako sentsibilizazio eta prebentzio goiztiarrerako zerbitzua.

- Informazio, Aholkularitza eta Orientazio zerbitzua bazterkeria egoeran egon daitezkeen helduen familiei zuzendua.
- Gizarte bazterketa egoera arriskuan dauden pertsona helduekin eta familiekin esku hartze gizarte-hezitzailea eta psikosoziala.
- Komunitate Prebentzioko zerbitzua. Taldeko programak edo jarduerak egitea babesgabetasun eta bazterketa esparruan.

Azpikontrataturako zerbitzuko lan-taldea osatuta dago 4 hezitzaileekin, psikologo batekin eta koordinatzaile batekin.

EGOITZA BALIABIDEA

Elkarbizitzako zentroak dira, ostatu zerbitzua emateko (intentsitate erdiko edo altuko laguntzekin) pertsona, gizarte eta harreman galera larriak dituzten pertsonen, gizar-teratzera bideratutako esku-hartzeak egin diezazkieten.

Aldundiaren menpe dago, baita ere baldintza batzuk betetzearen menpe: gizarte eta hezkuntzako programa bat, kasuaren balorazio profesionala, eta Arretarako Banakako Plana. Zentro horiek ez dira jotzen bertan hartutako pertsonen egoitzatza edo ohiko etxebizitzatza.



EGUNEKO ZENTROA

Zerbitzu honek Gipuzkoan gizarte bazterketa egoeran dauden pertsoneri baliabide hauek eskaintzen dizkie: leku bat eguna pasatzeko; eta, zerbitzu bat beren gizarte txertaketara bideratua dagoena. Berau balioanitz da, arreta eskaintzen die, denbora muga luzeak ez dituen eta ahalbidetzen duena pertsonak bere ohiko ingurunean bizitzen jarraitzea. Laguntza pertsonala eskaintzen da gizarte txertatzeko jomugarekin. Esku-hartzeak okupazionalak, hezkuntzakoak, terapeutikoak eta gizarteratzeak nahiz laneratzeak izan daitezke.

AKONPAINAMENDU ESPEZIALIZATUA

Bigarren mailako gizarte prestazio bat da. Profesional kualifikatu baten laguntza eskaintzen du zerbitzuak, eta erabiltzaileari autonomia pertsonala garatzen eta gizarteratze helburuak betetzen laguntzen dio. Prozesuan zehar erreferentziazko pertsona bat du laguntzeko.



ADINGABEAK ETA FAMILIAK



ADINGABEKOEN ARRISKU EGOERAREN BALORAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

Adingabeei eta beraien gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei laguntzeko zerbitzua da. Berau martxan jartzen da haurraren edo nerabearen garapenerako kaltegarritzat jotzen diren egoerak identifikatzen eta baloratzen badira, beti ere, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzeko arriskua badago edo kaltetua badago.

Udaleko Gizarte Zerbitzuek adingabeen eta familien arrisku-egoerei aurre hartzeko eta goiz detektatzeko lankidetzat estua dute ikastetxeekin, osasun zentroekin, gazteriarekin, udaltzaingoarekin eta komunitateko bestelako eragileekin. Zerbitzuak honako programak ditu:

- Gizarte eragileei zuzendutako sentsibilizazio eta prebentzio goiztiarrerako zerbitzua.
- Informazio, Aholkularitza eta Orientazio zerbitzua, adingabeak edo nerabeak dituzten familiei zuzenduta.

- Arrisku egoera dauden adingabekoein eta familiekin esku-hartze gizarte-hezitzailea eta psikosoziala.
- Arrisku egoeran dauden gazteentzat eta adingabekoentzat ingurune irekian gizarte-heziketa zerbitzua.
- Komunitate Prebentzioko zerbitzua. Familia /guraso /adin txikiko eta abarrekin arlo defizitarioak edo sintomak lantzeko taldeko programak edo jarduerak egitea.


ARRETA GOIZTIARRA

Arreta goiztiarra da 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiartekoei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa. Xedea da ahalik eta azkarren artatzea adingabeak eduki ditzakeen beharrak, eta, beraz, diziplinarterko lan-talde baten eskutik esku hartze plana finkatzen da. Besteak beste, estimulazioa, logopedia, fisioterapia...

Foru Aldundiaren eskumenekoa den Arreta Goiztiarreko onuradunei zerbitzua amaitzen zaienean, beste bi urtez, Azkoitiko Udalak laguntza lerro berri bat jarri du adingabe azkoitiar horiek laguntza beharra edukitzen jarraitzen badute.



INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK



INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEENTZAT ARRETA PSIKOLOGIKOA

Zerbitzua indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzendua dago. Eguneroko bizitzan jarduerak mugatzen edo baldintzatzen dizkien eraso psiko-emozionala pairatzen dituzten emakumeek tratamendu psikologikoa jaso dezakete, arreta individualizatu eta pertsonalizatuaren bitartez. Indarkeria matxistaren beste biktimei ere ematen zaie arreta, hala nola, seme-alabei edota erasotzaileei.

LAGUNTZA SOZIO-JURIDIKOA

Informazio eta orientazio juridikoa ematen zaie indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeei. Legediari buruzko informazioa eta esparru juridikoko baliabideen eta familia-zuzenbideari buruzko aholkularitza eskaintzen da, arreta pertsonalizatu eta individualizatuaren bidez. Zerbitzu honek modu integrarean jorratzen ditu aholkularitza sozio-juridikoari lotutako beharrianak, tratu txarren eta sexu askatasunaren aurkakoak izan daitezkeen ekintzen ondoriozkoak.

GIZARTE LARRIALDIKO ETXEBIZITZA

Zerbitzuak ostatu ematen die genero-indarkeriaren egoeratik biziberritu eta egoera hori gainditu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten emakumeei eta bizikidetz-unitateei. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eskaintzen ez duena harrera-etxean etengabe egon behar duen langilerik eta harrera-etxeari berriaz esleitutako langilerik. Beti ere posible izango da segurtasuna arriskuan jarri dezakeen egoerarik ez badago.

EGOITZA BALIABIDEAK

- Berehalako harrerako edo egonaldi laburreko zerbitzua da, eguneko 24 orduetan jasotzeko modukoa, urteko egun guztietan, berehalakotasunez hartzen dituen.
- Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera zentroak dira.
- Babes zentro batetik igaro ondoren egonaldi laburreko egonaldi bat behar dutenei.

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

Prozedura judizialen kostua ordaintzeko jarraibideak ematen dira. Besteak beste, abokatuaren, prokuradorearen eta perituen ordainsariak edota aldizkari ofizialeko iragarkiak hartzen ditu barne dirulaguntzak.

Doakoa da genero indarkeria kasuetan.



DIRULAGUNTZAK



MENPEKOTASUNeko DIRULAGUNTZAK

FAMILIA INGURUNeko ZAINZETARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (FIZPE)

Bizikide duzun familiarteko baten laguntza jasotzen baduzu, hileko diru-laguntza bat eska dezakezu arretako gastuak estaltzeko. Diru-laguntzaren zenbatekoa mendekotasun mailaren araberakoa da, beste zerbitzu batzuekin bateragarria da eta zaintzaile familiarrak gizarte segurantzian kotizatu dezake.

Bateragarria da Etxez Etxeko Laguntza edo Eguneko Zentroko zerbitzuarekin, nahiz eta kasu horretan, minorazioak egon daitezkeen.

LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA(LPPE)

Mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile ez familiarra eta profesionala kontratatzeak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko hileko diru-laguntza da. Diru-laguntzaren zenbatekoa mendekotasun mailaren araberakoa da, eta bateragarria da beste zerbitzu batzuekin. Gastua justifikatu egin behar da.

Bateragarria da Etxez Etxeko Laguntza edo Eguneko Zentroko zerbitzuarekin, nahiz eta kasu horretan, minorazioak egon daitezkeen.

ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (ZLPE)

Egoitzako edo Eguneko Zentroko plaza publiko bat eskatu baduzu, eta Foru Aldundiak eskaera onartu bai, baina plaza hori ematen ez badizu, hileko diru-laguntza bat eska dezakezu, modu pribatuan kontratatutako plaza baten kostuarekin laguntzeko. Diru-laguntzaren zenbatekoa mendekotasun mailaren araberakoa da. Gastua justifikatu egin behar da.

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO LAGUNTZAK

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako diru-laguntza da, gizarteratzea errazteko, betiere errenta-maila jakin batean kokatzen baldin badira, eta adinagatik, prestakuntza edo espezializazio faltagatik, eta gizarite arloko beste arrazoi batzuegatik, zailtasun bereziak baldin badituzte lana aurkitzeko.

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEN LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA OSAGARRIA

Tratu txarrei aurre egiteko laguntza osagarria da. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediak aurreikusten dituen laguntzak osatzeko da, bereziki, biktimaren eta bere bizikidetzaren unitatearen oinarritzko beharrak asebete daitezen.



GIZARTERATZEKO DIRULAGUNTZAK

GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK (GLL)

Gizarte-larrialdietarako laguntzak diru-laguntzak dira, aldian-aldian ematen ez direnak, eta haien hartzaileak hauek dira: gizarte-bazterkeriari aurrea hartzeko edo hura saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoak –ohikoak nahiz ezohikoak–egiteko behar beste baliabide ez duen bizikidetzaren unitate bateko kide diren pertsonak. Gastu espezifikoak hartzen dira: Ohiko etxebizitza eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak: alokairua, hipoteka, energia, oinarritzko ekipamenduak; Oinarritzko beharrak eta aipatutako kontzeptuen Zorpetzeak.

BANAKAKO DIRULAGUNTZAK

Gastu zehatzei, ohiko edo ez ohikoei, aurre egiteko baliabide eskasak dituzten familiei edo pertsonari zuzenduak daude. Diru-laguntza honen bitartez, Udalak sistema publikoek babesten ez dituzten beharrei aurre egiten die. Beharrezkoa da Arreta Pertsonalizatuko Plana edukitzea.

DROGA-MENDEKOTASUNAK TRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

Adikzioak gainditzeko tratamenduak ordaintzen laguntzeko diru-laguntza da, zehazki, EAEko tratamendu-zentro publiko nahiz itunpeko errehabilitazio-tratamendua hasten duten azkoitiarren eta haien senideei joan-etorriak finantzatzeko.



ESPETXEETAN PRESO DAUDEN SENIDEENTZAT GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Euskal Autonomia Erkidekotik kanpoko presondegietan dauden pertsonen sendiei bideratutako diru-laguntza da, bisiten joan-etorrien gastuak ordaintzeko.



ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN JARDUERAK GARATZEKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuen arloan Azkoitian diharduten edo/eta onuradunak Azkoitiko herrietarrak dituzten elkarteek garatutako jardueretarako diru-laguntza izendunak dira. Honako elkarteei eman ohi zaizkie diru-laguntza:

- Azkoitiko Gurutze Gorria
- Azkoitiko Caritas
- Marea Urdina
- Azkoitiko Odol Emaileak
- Izan Fundazioa
- Urola Kostako AECC
- Darahli Elkartea
- Gipuzkoako Elikagai Bankua

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI EDO INSTITUZIOEI DIRULAGUNTZAK

Urola Kostan egoitza soziala duten Gobernuz Kanpoko Erakundeei garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helburua duten programak edo proiektuak garatzeko diru-laguntzak dira. Baita ere bultzatzea Azkoitiko herritarren sentsibilizazioa.



ADINEKOENTZAT EDOTA DESGAIUENTZAT DIRULAGUNTZAK

KOTIZATU GABEKOEN PENTSIOA KGP (PNC) ETA ALOKAIURAKO OSAGARRIA.

Bizitzeko nahikoa baliabide ekonomiko ez duten pertsona adinduei (65 urtetik gora) edo desgaituei (%65 edo gehiago) zuzendutako hileko diru-laguntza da. Alokairuan bizi diren onuradunei errenta ordaintzen laguntzeko ordainketa bakarria eskatu daiteke.

EKIMEN INTERESGARRIAK



KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA

Bizitza aktiboa eta osasuntsua sustatzea du helburu. Inaktiboak diren pertsonen egunerokotasunean jarduera fisikoa eta ohitura osasuntsuak txertatzen laguntzen zaie zerbitzuaren bidez. Bakoitzaren egoera fisikoaren, beharren, baliabideen eta lehentasunen arabera, orientatzaileak aholkuak eta jarraibideak emango dizkie partaideei.

Astearteetan, ostegunetan eta ostiraletan Kultur Etxean eskaintzen da zerbitzua, eta asteazkenetan, Osasun Zentroan.

- **Harremanetarako:**
688 763 963 / koz@azkoitia.eus

PASIRA

Sozializazioa eta jarduera fisikoa uztartzen ditu proiektuak. Taldea astero paseatzera ateratzeko elkartzen da, joan-etorria solasaldirako aprobetxatuz. Herriko hainbat gune interesgarri bisitatzeko ere aprobetxatu ohi dute hitzordua. Adineko pertsonak lagunduta joaten dira.

Pasiran, Udalarekin batera, parte hartzen dute Azkoitia Lagunkoiak, Izarraitz Lanbide Heziketak, Gurutze Gorriak, Kirol Orientazio Zerbitzuak, Plaza Ondo Jubilatuen Elkarateak, Caritasek, Osasun Publikoak eta Osakidetzak.

Ostegunero goizeko 10:00etan elkartzen da taldea Aizkibel Liburutegi aurrean.

AZKOITIA LAGUNKOIA

Herritarren, eta bereziki, adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko xedez egiten du lan Azkoitia Lagunkoiak. Talde eragilea hilean behin elkartzen da.

Etxebizitza, komunikazioa, irisgarritasuna, familia, parte-hartze eta beste hainbat arlo aztertzen ditu eta zubi lana egin Udalarekin.

Hitzaldiak, ikastaroak eta beste hainbat sentsibilizazio jarduera ere garatzen ditu taldeak.



GURASO ESKOLA

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei eta tutoreei zuzenduta, Guraso Eskola antolatzen dute Gizarte Zerbitzuek, Berdintasun, Prebentzio eta Gazteria arloekin elkarlanean. Haur eta gazteen heziketari lotutako hainbat gai jorratzen dira saioetan, hala nola, seme-alabekin emozioak lantzeko erramintak eta aholkuak, estresa kudeatzeko estrategiak, denbora antolatzeko jarraibideak, afektibitatearen garrantzia, e.a.

ADIKZIOEN PREBENTZIOA ESKOLETAN

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Mailan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan lantzen da adikzioen prebentzioa. Programa adinaren arabera egokituta dago. Gaztetzkoen artean bizitzarako trebetasunak, autoestimua, e.a. lantzen dira, eta aurrera doazen heinean, substantzia toxikoek dituzten arriskuak eta ondorioak jorratzen dira, adikzioei lotutako beste hainbat gairen artean. Izan ere, garrantzitsua da auto-erregulatzeko gaitasunean hezitzea gazteak.

HEZKIDETZA PROGRAMA

Hezkidetza programaren bidez, herriko ikastetxeetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzen da, estereotipoek eragiten duten kaltea, elkarren arteko errespetuaren garrantzia, e.a. Baita Hezkuntza afektibo sexuala ere. Programaren jarraipena egiteko Hezkidetza Foroa dago. Bertan bost ikastetxek hartzen dute parte, alegia, Xabier Munibe Ikastolak, Floreaga Ikastetxeak, Azkoitia BHI-k, Bizilore Eskola Aktiboak eta Izarraitz Lanbide Heziketak, eta eskolekin batera, kale-hezitzaileek eta Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Berdintasun arloak.



